

DIRU-SARRERAK

Negozio-proposamena ondo diseinatzeak eta modu egokian abian jartzeak, diru-sarrerak eta etekinak lortzea ahalbidetuko digu. Diru-sarrerak sortzeko modu anitzak dauzka enpresa batek: aktiboen salmenta, erabileragatiko saria, harpidetzagatiko saria, mailegua, rentinga eta alokairua, lizentziak, broker edo komisio bidezko sariak eta publizitatea.

Beti-xiku enpresaren diru-sarrera nagusiak aktiboen salmenta bidez lortuko dira. Eskainiko ditugun produktuen salmenta izango da enpresa bizirik mantenduko duena. Bestalde, sare sozialetan egingo dugun publizitatea inbertsio bat izango da gure salmentak handitzeko. Hala ere, hori ez da dirua lortzeko bide zuzen bat izango. Gure produktu guztiak ordainketa bakarreko diru sarrerak izango dira.

Azkenik, aipatu beharra dago gure salmentak Ezpeletarekin izango dugun aliantzara guztiz lotuta egongo dira, kanalak partekatuz hala nola dendetan produktuak batera salduz (Bi aterki erosiz gero Xiku-Xiku ale bat) . Bestalde produktu anitzak saltzen dituzten enpresetan (Leroy Merlin, Amazon) eskainiko dugu gure produktua. Beraz diru-sarrerei dagokionez tarteko kanalak izango direla eta, irabazien %60 izango da Beti-Xikurentzat.